


EG GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27



Josean Kerejeta

“Laussannen negar
egin nuen”

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA**
HARATEGIA




Florida Azoka
2 eta 3 ☎ 13 24 48
Abastos Azoka
2 eta 3 ☎ 26 78 97
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA
PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena
kalitaterik onena*




APAINDURA
Cercas Bajas, 27

geu GASTEIZ ekaina

OKOA aldizkaria,
Arabako kultura
6. orrialdea



Josean Kerejetarekin
hizketan
18 orrialdea



22 ohar ipuin baterako.
Patxi Zubizarretak
eskeintzen digun bere
ipuin berria.
11.orrialdea

...eta askoz gauza
gehiago.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Komikiaren gorabeherak

Berehala somatuko duzuenek, bagara zenbait pertsona munduan edozein ergelkeria kontatzeko marrazkiaz baliatu behar dugunok, hitz hutsen bidez soilik kontatzea itolarria suertatzen baitzaigu. Beraz, horretarako erabiltzen dugu komikia, hitzez eta marrazkiz barnean ditugun istorioak kontatzeko, eta irakurlea hunkitu edota ondo pasarazteko. Kontua ez datza texto bat ilustratzean bakarrik, baizik han bakoitzak (testoak eta irudiak) bere nortasuna izanda, elkarren arteko harreman estuak sortzean (nahiz eta hori zaila izan, askotan ilustrazio hutsean geratzen baita). Arte sekuentziala denez lotura haundiak ditu zinemarekin, ez bakarrik azken honetan ere hitza eta irudia elkartzen direlako, lantzeko era ere antzekoa da: planoak, sekuentziak, mugimendua... Horregatik gustatuko zaizkit horrenbeste filmeak.

Euskal herrian kasu latz berebean zenbait lagun aurkitzen garelako ikusita, hasi gara Nappartheiderantz hurbiltzen; bai gure barneak eta gainontzekoenak astintzeko, bai euskarrekiko militantziari eusteko, oso modu zuzena eta polita baita. Eta sartuberriak diren hauen artean badago ere gazte-gaztea eta indarberriak emateko prest dagoen jendea. Beraz, duela bostpasei urte, jende gutxik parte hartzen zuelarik, Nafarroan sortutako aldiz-

kariak gaur egun Euskal herri osoko lagunak biltzea lortze du; nahiz komikigintzan aritzen direnak, nahiz aldizkaria banatzen eta edozertan laguntzen dutenak. Eta ez du bakarrik Euskal herri osoko jendea bildu, bertako euskalkiak ere bai.

Dagoeneko Nappartheidek 14. alea zenbait gehigarrirekin atera berria du, eta lortu izan da 5.000 aleko tirada kaleratzea, Geu Gasteizek duen tiradarekin parekatzea gure asmo bakarra baitzen.

Beraz, badakizue, komikiak irakurtzeko ohiturarik ez duzuenok, has zaitezte oraintxe bertan, mundu liluragarri bat ari zaretelako galtzen, eta jakina zuentzat kalte!!!

PINTXO (Nappartheid-ekoa)



GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

1691 Postakutxa
Tfnoa 26 25 92



elkartearen babesarekin
5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Erredakzio-batzordea: Iñigo Barruso, Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Patxi Salaberri
Kazetariak: Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Ismael Diaz de Mendibil, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Olatz Irizar, Miel Anjel Elustondo
Koordinatzailea: Inaxio Lopez de Arana
Komikia: Iñigo Sarasola
Marrazkiak: Aitziber Iriondo
Maketazioa: Iñaki San Pedro, Alex Badillo
Publizitatea: Rakek Peña, Martin Rezola
Argazkilariak: Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzu, Jon Onaindia
Kolaboratzaileak: Txipi Ormaetxea, Oier Zulaika
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)
GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik

GASTEIZ aldizkaria erxean dohain jaso nahi dut.

IZENA:

ABIZENAK:

KALEA:

Kode Postala:

HERRIA:

Pisua:

ZKIA:



J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tñoa: 28 81 47
•GASTEIZ

KOLABORAZIOA

araba euskaraz euskal herrian euskaraz

JAIETAKO GIRO alaiarekin bat eginez, AEK eta IKAKo eskalategiek, BAGARE Euskal Tokiak eta EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ-ek Araban euskararen alde erabiltzeko ikur berria plazaratu dugu aurtén.

ARABAN EUSKARAZ lemapean, Arabak, Euskal Herri oso-osoak bezalaxe euskaraz bizitzeko gogoia duela isladatu nahi izan dugu. Izan ere, ikurra soinean eraman dugun milaka gasteiztar, arabar eta euskaldunok horren froga gaituzue.

Dena den gogoia ez da nahikoa, ikur xume horren bidez jaietako giroa -alaitu eta baikorra- euskaraz bizitzeko dugun beharra adierazi nahi izan dugu.

Araba, tamalez, hizkuntzari dagokionez, oso zigortua izan da. Hauteskunde garaiak hurbiltzen direnean areagotu egiten da

zigorra. Ezin dugu inondik inora ahaztu alderdi espainolistek euskararekiko darabilten jarrera.

Dena den, ARABA EUSKARAZ lemapean egin dugun errebindikazioa alaitua eta jai girokoa izan da. Euskara ez da tresna politiko hutsa, bizitzeko modu bat baizik. Euskara jaietan erabili dugun bezala eguneroko borrokan ere erabiliko dugu, Euskara -geu bezalaxe- hemengoia baita.

Fontso

Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea



Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ**

Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

ARTE GALERIA
LOURDES UGARABE
Los Arquillos kalea, 7
Tfnoa:(945)146261 • Fax:(945)143509
01001 GASTEIZ





Jose txu Larreina

Doinua: Arratsalde on lehendabiziko

BERTSOAK Matrikula zaitez

«Juerga» garaian entzun dugu:
ikasi nahi nuke, baina,...
ea aitzakiak bukatzen diren
betirako alajaina.
Orain gainean dugu berriro
matrikulazio kanpaina
eta Gasteizen euskalduntzeko
bada aukera nahi haina.

Florida kalean HEGOALDE
Abendañon UDABERRIA
Zaramagan eta Zaldiaran Plazan
IKA, a zer gauza pozgarria,
AEKk Perun, Mardones eta
Aranan beste bat berria,
hola erdaldun jarraitzea da
pekatu lotsagarria.

Aukera denetarik badira
euskal adarren arbolan
helduak euskaltegian eta
txikitxoak ikastolan,
behin martxa hartu eta euskara
ahoa eta odolan
bi urte barru zuen zai gaude
TXUSTAKo bertso eskolan



Posta Txokoa

Pluraltasuna bai, baina...

UZTAILAREN 9AN milaka euskaldun eta euskaltzale bildu ginen Gasteizko kaleetan zehar euskararen kontra egiten diren erasoak salatzeke asmoz.

Jakitean manifestapena lagundu zuten taldeen artean GEU elkarteak ez zegoela harridura sortu zitzaigun, batez ere ikusita elkarrekin argitaratzen duen aldizkarian euskaraz gaizki idatzita dauden txartelen salaketa egiten dela eta ez direla salatzen maila haundiko erasoak, UAK egiten dituenak alegia.

Guk dakigunez elkarrekin helburuak izanik euskararen erabileraren normalkuntza, euskal kultura bultzatzea, euskaldunon artean dinamika baten eragile izatea eta abar, ez dugu ulertzen nola pluraltasunaren izenean ez zaio laguntzarik ematen euskarak iraunaraztea eskatzen duen manifestazio bati, guk ulertzen

baitugu elkarrekin helburuak ez dutela zentzurik euskara bera eta euskal kultura esistitzen ez badira.

Ez dituzue mindu nahi euskarari ahal duten minik haundiena egiten diotenak, eta bien bitartean euskara maite dugunok zuen jarreragatik minduta sentitzen gara.

UA bezalako alderdi bat izateak euskara erasotzean datza. Araba euskaldun batean UAK ez bailuke zentzurik izango. Beraz, arlo honetan UArekin harreman onak izatea alferrikako lana da.

Gaur UAK dio erakundeek dirua xahutzen dutela euskalduntzen prozesuan, bihar helduen alfabetatzean eta etzi GEU GASTEIZ aldizkariak diru-laguntza haundiegia jasotzen duela.

Beraz, uste dugu denon laguntza behar dela euskararen aurka egiten diren erasoei aurre egiteko. Bide honetan euskaldun eta euskaldun

ez diren erakundeekin laguntza behar da, GEU GASTEIZ barne.

GUSTABO ETA FERNANDO

GEU Elkarrekin Oharra

Jakin badakigu aspaldidanik euskarari erasoak egiten zaizkiola. Horiak indargabetzeko era desberdinak daude, ordea. Horregatik, euskararen aldeko ekintza guztiak errespetatzen ditugun arren, GEU elkarrekin hasieratik eraman dugun lan ildoari eutsi nahi diogu orain eta aurrerantzean ere, alegia, Gasteizen euskaraz bizi izateko aukerak areagotu eta euskal gunea sendotzeari. Horren adibideetako bat esku tartean duzun aldizkaria, bi urte bete berri dituen.

GEU Elkarrekin Zuzendaritza Batzordea



Eskaintza honek betaurrekoak ahitu arte balio du

PACK GAZTEA

Orain jantzi ditzakezu 6 hilabetetako Multilens lente botatzekoak, Ixurkari Bakarreko bi ontzi eta kutxatila, zoratzeko prezioan. Eta gainean, Folding izeneko Ray Banak jarriko dituzu kitorik. Hori guztia, Mendia Optikak eskaintzen dizkizun zerbitzuaz eta garantiaz, jakina.

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
Gasteiz

OKOA Arabarron kulturaren babeserako txokoa



Okoa aldizkariak Arabako kultura bultzatzea eta gure historia zabaltzea du helburutzat. Orain arte bi ale kaleratu dituzte eta hirugarrena hemendik lasterrera izango dugu eskuragai. Baina gu nahikoa zazpiki garenez, ez dugu egonarririk izan horren zain egoteko. Beraz, Arabako aldizkari hau hobeto ezagutzera gonbidatzen zaituzte GEU GASTEIZek oraingo alearen bidez. Horretarako, Okoa kultur elkarteke partaidea den Fernando Velez de Mendizabalekin hitzegin dugu.

“**Bere hirugarren alea hilabete honetan bertan plazaratuko du OKOA aldizkariak**”

OKOA KULTUR ELKARTEAK estraineko bilera egin zuen 1992ko urtarrilaren 31an. Gure kulturaren hainbat arlo lantzea du helburu talde honek. Araba osatzen duten zazpi kuadrilek hezurramitzen dute Okoa. Arabako kultura zaintzea beraien helburu nagusia da. Ezaugarri zeharo apartidistak agertzen ditu arabar elkarte honek.

Fernando Velez de Mendizabalek esan

digenez, “Okoa elkartetik arduraz dakusagu gaur egungo egoera. Gure kultur erreferentziak eta kolektibo gisa ditugun nortasun-ezaugarriak aldrebestu, instrumentalizatu eta galbidean jarri dituzte. Horretarako, gure historiaren ikuspegi okerra, uniformista eta interesatua darabilte, arabarrok gure lurraz dugun ezagupen eskasaz baliatuz”.

Okoa elkarteak egoera horri aurre egiteko tresna bat izan nahi du bere lana

gizartearen esku utziz. “Gure arbaso-enganetik belaunaldiz belaunaldi hartu dugun orubeari eutsi eta, oraingo garai desberdin honetan, gure ohiturek bizirik jarraitu behar dutela uste dugun guztiontzako lekurik bada geure elkarteak”, azaldu digu irripartsu Velez de Mendizabalek. Arabarrok aktibo sentiarazteko ahaleginetan diharduen mugimendua izan nahi duela Okoa elkarteak gaineratu du gero.



HEGOALDE
euskaltegia

Florida 58, behea. Tfnoa. 28 41 96
01005 GASTEIZ

94/95 EUSKARA IKASTAROAK

Urrats guztiak: 1etatik EGAr goizez, arratsaldez deta gaez.
4 edo 2 ordutako ikastaroak.
Matrikula: Irailaren 29a arte.

H.A.B.E.-k homologatua



Okoa, kulturaren zabaltzaile

Aurtengo aurreneko hilabeteetan argia ikusi zuen aldizkariaren estraineko aleak. Bigarrena ekainean etorri zen, Araba Euskarazeko jaiarekin batera. Hirugarrena hilabete honetarako iragarri dute.

Gure kultura eta historia ezagutzera ematea da beraien helbururik gailen-garriena. Beraien borondatez egiten dute lan eta Arabako hainbat herritakoak ditugu aldizkarian dihardutenak.

Hizkuntz-tratamenduari dagokionez, elebiduna dugu aldizkaria, euskara eta gaztelera erabiltzen baitituzte. Fernando Velez de Mendizabalen esanetan, "euskarra hutsez argitaratu nahi genuke aldizkaria, baina gure helburua Araba osora iristea denez, eta gure nortasunari uko egiten diotenak, neurri handi batean, erdaldunak direnez, egokiago iruditu zitzaigun artikulurik gehienak erdaraz idaztea".

Etorkizunean eskuhartuz

Arabak egun bizi duen egoerari aurre dion tresna eta bilgunea izan nahi luke aldizkari honek. Beraien ustez, etorkizunaren eraikuntzan arabarrok parte hartza-

ile aktibo bihurtuko gaituen mugimendu bat egituratu beharko litzateke. "Asko gara gure ohiturak oraindik baliogarriak direla uste dugunok; belaunaldiz belaunaldi gure arbasoengandik jaso ditugun lurra eta etxea arrotzen eskuetan utzi behar ez direlako sinismenari lotzen gaitzaizkionak ere".

Fernandoren irudiko, bere kulturari muzin eginez bizi den herriak ez omen du bere historia ezagutzen. Hortaz, "lehenago edo beranduago desagertuko da". Hauxe da beraien asmo akuilugarria: "Gure etxeak zutik iraun eta gure kultura bizirik sentitu ahal izatea". Horrexegatik, Arabako kulturaren aldeko borrokan segituko dute. Eta zuek ere, irakurleok, gure kulturaz arduraturik bazaudete, baduzue Okoa elkartearen parte hartzerik. Nola? Oso errez, elkarte horretako bazkide eginez, kasu. Horretarako, urtean 2.000 pz. baino ez duzue ordaindu behar. Bestalde, badakizue Okoa aldizkariak hilabete honetan bertan bere hirugarren alea argitara emango duela.

Susana Calleja & Itziar Mtz. de Santos

Salmenten Txokoa

«Trigano Randger»
erremolke-denda
alemaniarra

4-5 plaza
eskaratzea
2 arko
motelgarriak
balezten suspentsioak
eta abar luze bat

...220.000 pezetatan
salgai

Tfnoa: 26 65 98
(gaueko 8etatik aurrera)

Ikasketak jarraitzeko
bibolin oso (4/4)
baten bila nabil

Tfnoa: 26 65 98
(gaueko 8etatik aurrera)
Alaitz

Neska euskaldun bat
behar da ume txiki bat
zaintzeko eta etxeko
lanak egiteko.
Lana urrian hasiko
litzateke.
Interesatuok deitu
14 67 59 telefonora

Zerbait saldu edo erosi
nahi baduzu...
idatziguzu edo
telefonoz deitu.



**DEIADAR
GASTEIZ
FANFARREA**

Telefona: 23 17 13

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



Alde Zaharra: hiriaren arima



Kanpotik etorri ohi den turista saldoa, bertako gazteria asegitza, lasaitasun bila dabilen agurea, martxa bila doan nerabea, soldaduak eta intsumituak, maiteminduak eta maitasun une bat erostera doazenak, gazteak eta helduak... denak ditugu bertako bisitari; baina ezer gutxi dakigu etxe zahar miressgarri borien barruan bizi direnei buruz. Zeintzu dira, zeintzu kezka dituzte? Horretaz askotxo daki Rafa Ruiz de Zaratek, Gasteiz Txiki Auzokideen Elkarteko kideak, eta berarekin mintzo gara, berak dakiena guk ere jakin dezagun.



ALBENIZ
MOBILIARIOA



Cercas Bajas, 8
Telefona eta Faxa 28 74 82
01008 GASTEIZ



BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

GEU GASTEIZ: Zein da Alde Zaharraren eguneroko bizitza laburbiltzen duen ezaugarria?

RAFA RUIZ DE ZARATE: Udalak gurekiko duen interesik eza. Oso zaila da hemen bizitzea. Hiriaren arazo guztiak bertara bildu nahi ditu Udalak hiria garbi mantendu dadin. Bizilekuei dagokienez, oso arazo handia dago, baina interes historikorik duten etxebizitzak besterik ez dira berriztatzen.

G.G: Horrek ba al du konponbiderik?

R. R. Z.: Ez, gauzak dauden bezala egonda, ez dago hori zuzentzerik. Taberna bati denuntzia ezarriaz ez goaz inora. Eta etxe bat noiz berriztatuko zai gaudenean goitik behera erortzen zaigu berau. Hemendik ospa egitea dugu irtenbide bakarra. Hori da erosoena eta jendeak hori egin ohi du.

G.G: Hortaz, auzoa bizilagunik gabe geratuko da.

R. R. Z.: Bi jende mota ditugu hemen: batetik, hau utzi ezin dutenak (jende marjinatua da beste nonbaiten bizi izatea ezinezkoa zaiona); bestetik, auzoa utzi

nahi ez dugunok.

G.G: Eta zuek zer lotzen zatzaizkiote auzoari?

R. R. Z.: Auzoa maite dugu. Bertan bizi gara Gasteiz osoa Alde Zaharra zenetik. Garai horiek berreskuratzeko burrukan gabiltza, Gasteizko auzoen zaborategia izan ez dadin.

G.G: Idenifikatzen al da jendea auzo-arekin?

R. R. Z.: Bai, asko. Hemen arazo asko ditugu, eta larriak oso. Horrexegatik, bertakook ahal dugun guztia jartzen dugu horien konponbidean. Oraingo mendearen lehen erdialdean balkoitik balkoi aritzen zen jendea. Bizilagunok oso gertu zeuden elkarren artean. Eta hori ez da galdu.



Zenbait datu

BIZTANLEAK: 10.000 inguru.

Adinez nagusiak, kanpotarrak eta diru gutxikoak.

HISTORIA: Gasteiz hiriaren oinarria da, mende honen hasiera arte ez baitzen


zabalkundea gertatu.

MONUMENTUAK: asko dira baina bakarra azpimarratzekotan, Santa Isabel Eliza nabarmendu behar da gure elkarrizketatuaren arabera.

BERDEGUNEAK: Landatxo

XXI. MENDEAN EUSKALDUN

IKASI



ARI

Zure esku dago !

- * 2, 3 eta 5 ordutako ikastaroak.
- * Urrats guztiak, EGA, Mintza eta Sakontze
- * Ikastaro bereziak haurrentzat
- * IKAS-TXIP (euskara ordenagailuz)
- * Negu barnetegia Lesakan

GASTEIZ-ADUR: Errege Katolikoak 15 (28 89 22) PINTO: Pintoreria 74 (28 79 80)

ZALDIARAN: Zaldiaran Plaza 16 (24 49 05)

MATRIKULAZIOA: irailaren 5etik 23ra





Udazkenean... zer irakurri ?



EUSKARA NAFARROAN

Egilea: Joseba Intxausti
Argitaletxea: Nafarroako Gobernua
26 orrialde

Erdi Aroko Nafarroak hizkuntza bat baino gehiago ezagutu zuen: atzerritarrek ekarriak (arabiera, hebraiera, kaskoina), aurreko etorkinengandik jasoa (latina) bertan latinetik jaioa (erromantze nafarra) nahiz betidanik hementxe errota (euskara). Baina horietako bakoitzaren barruti geografikoa eta betekizun sozialak arrunt ezberdinak ziren. Euskara zen herri xumearen hizkuntza. Euskaraz mintzatuz bizi zen herri nafarra.



BENJAMIN TUTERAKOA Bidaien liburua.

Argitarapen hirueleduna: euskara, gaztelania, hebraiera.
Argitaletxea: Nafarroako gobernua
Euskarazko itzulpena: Xabier Kintana

Ez dira anitz, zoritxarrez, Euskal Herrian bizi izandako juduengandik heldu zaizkigun berriak, eta ditugun gehienak nafarroan bilduan. Baina gutxi izanik ere, maila eta distira berezia izan dute juduek gure artean, eta oso bereziki Turerakoek. Liburu honen lehen argitarapena 1543. urtean agertu zen Konstantinopolisen, lehen euskal liburua baino bi urte lehenago, alegia.



EUSKARA DENONA

Egilea: Nafarroako gobernua
12 orrialde

Izen bereko Erakusketaren oroigarri inprimatua duzue honako hau. Bertan Euskaraz Nafarroan 12an duen bilakaeraren ikuspegi orokor bat ematen ahalegintzen dute, aintzinetatik orainera. Liburuxka euskeraz eta erderaz idatzita dago goitik behera.



KALEA GUZTIONA DA

Egilea: Kunisa
Argitaletxea: Txalaparta-axuri beltza saila
54 orrialde

San Jose Auzoko haurrek parkea lortzea erabaki dute. Horretarako eskura dituzten bide guztiak jorratuko dituzte:

Kontzejua, prentsa, zinegotziak... Baina gauzak ez dira beti oso argiak izaten.

Zinegotziak interesa handia azaltzen du, baina jakina, segituan izanen dira udal hauteskundeak. Justiziaz zer zaiguna ez digu inork oparituko.

7 urtetik aurrerako haurrentzat egokia.

TROSTAN, HEGAN ZEIN NARRAZEAN

Egilea: Karlos Gorrindo.
Argitaletxea: Txalaparta-axuri beltza saila
77 orrialde.

Mikelek oso interes handiz hartu du hirian zooa jarri behar duteneko berria. Baina hasieran, besterik ez; geroxeago konturatuko da zooaren itxura alaiaren atzean, dena ez dela hain polita. Animaliak giltzaperaturik bizi dira, euren etxeok, familiak eta lagunak dituzten lekutik oso urrun, eta gainera gehienentzat jasangaitza den egoeran, Arazo latz honi irtenbide egokia ematen saiatuko da Mikel gaztea.



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK



MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

22 OHAR ipuin baterako

**Patxi
Zubizarreta**



BAT. Gaur, aspaldiko partez, koaderno berri bat erosi dut, eta oso oker ez banago, Paula hil zenetik hauetxek dira idazten ditudan lehendabiziko hitzak.

Gaur, aspaldiko partez, ipuin berri bat idazten hastea erabaki dut, ipuin baterako zenbait ohar jasotzea hobeki esan, gero, egunen batean, agian ipuin batean gauzatuko direnak. Lehen pertsonan idatziko dut eta narrazioa honelakoxea izan daiteke: irakasle ohia; hirurogeita bost urte inguru; emaztea hil zitzaionetik hau bezalako zahar egoitza batean bizi da; eta bere bihotzak zaldiko-maldiko bat iduri du, aldi motel aldi azkar, azkarregi abiatzen zaiolarik.

Beharbada autobiografikoa atera zait, baina badut azken urteotan gordetako hitzak askatzeko gogo eta, beraz, bego horretan. Hala ere azti ibili beharra daukat: ipuinean agure baten bizipenak eta gogoetak jaso arren, erritmo bizi eta arinez idazten saiatuko naiz.



Bi. Orain arte aipatu ez badut ere, ene indarberritze honen oinarrian dagoen pertsonaren izena azalduko dut: Lazaro.

Bera etorri aurretik, egoitzako bizitza txepela eta motela egiten zitzaidan, baina nago bere etorrerak ustegabe eta ezustez betetako aldi berria zabaldu didala.

Antza, bera ere alarguna da eta hona etorri baino lehen erlojutegi batean egiten zuen lan. Patxada handiko gizona izaki, norbaitek erlojua lehenbailehen konpontzeko eskatzen bazion, honek "Bai, nahi baduzu heregunerako egingo dizut" erantzuten omen zuen. Hargatik edo, lehenagotik ezagutzen zuten egoitzako batzuek "Lazaro Berandu" edota "Lazaro Luzaro" deitzen diote.

Edozein gisaz, ene ipuinean Lazaro agertuko balitz, bere izena aldatu eta apur bat mozorrotu egin beharko nuke.

HIRU. Aurrekanposantu goibela. Horra hor Lazarok gure egoitzari deitzeko erabiltzen duen izena, izen ezin egokiagoa...

Alabaina, bera hona etorri eta egun gutxitara zenbait gauza aldatzen hasi ziren. Batetik, hormako erlojutzarra konpondu zuen eta, beraz, atzera ere neurtzen hasi zen gurean erabat gelditurik zegoen denbora; bestetik, bere gain hartu zuen liburutegiko ardura: argitasuna handitu, liburu berriak ekarri...

—Ikusi al duzue zer nolako liburuak ekarri dituen larrubeltz horrek?

zioten agure masiatzaileek.

—**Hirugarren adinekoen sexualitatea...**

Nik neuk ere bere bitartez Luis Sepulvedaren **Amodio nobelak irakurtzen zituen agurea (El viejo que leía novelas de amor)** ezagutu nuen eta, besteak beste, ene ipuin berrirako, aipu gisa edo, pasarte hau jaso nuen: «Eskuetara

itsatsirik geratzen zen liburu hura, eta ikustekoa zen irakurtzeari inola ere ez uzteko, begiek nola egiten zioten aurre nekeari...» Bestalde, zahartasunaren pozoinari muturrak erakusteko oso bide egokia eskaintzen du: irakurketa.

LAU. Egoitza behin eta berriro aipatu arren, ipuinean zehar geratuagotik sentiarazi beharko nuke bertako giroa: gehiegizko beroa, usain bereziak (botikena besteak beste), ohiturak, ordutegiak, alkoholik gabeko taberna, pertsonak berak... , hau da, Lazaroren esanetan "Zahartzaro light" hau osatzen duten osagaiak.

Osagai horiek, pertsonak batez ere, narrazioan tartekatu beharko nituzke, hala nola:

-**Genobeba:** burutik apur bat arindua eta eskuetatik joana; hamalau seme-alabaren ama izaki, batzuetan haurgintza minetan dagoela sine-tsirik "Agudo, presta itzazue aspila eta toaila batzuk" esaka hasten da, edota "Ea ba, ura irakiten jarri, umea hementxe da-eta!"

-**Julian:** mus txapelketen antolaitzaile ofiziala; txapelketa bat amaitu ordukoze hurrengo prestatzen jardungo du, hain da zalea; mus jokoaz gain, gure artean hain ezagunak diren *punttua* eta *amona xabarra* ere aipa ditzaket.

-**Luzia:** soil-soilik eguraldi onarekin ateratzen da, eta orduan terrazako eskutokiari helduta ibiltzen da; tirrikitaraka, atzera eta aurrera..., izan ere Luzia itsua baita; bestela egoitza zuloan egoten da, irrati tiki bati pega-pega eginda; diotenez, zetazko ator xuri bat gordetzen du, orain arte sekula jantzi gabea, horrekin lurperatua izatea nahi duelako...

-**Migel:** zaharretxe guztietan egoten den ohizko pertsonaia.



GARNICA 

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73

eltze guztietako burduntzalia; aho-beroa samarra, beti gerrako kontuekin aritzen da, baina koronel bati dagokion moldean (nahiz eta bera sarjentu izatera baino iritsi ez.) Bere eraginez, gerrako pasadizoak dakartzan Salaberriaren **Neronek tirako nizkin** nobela ekarrarazi dugu.

BOST. Liburutegian elkar-tzen garenean, Lazaro haserretu eta sutuki mintzatzen hasten da egoitzako bizimoduaz; berak dioenez, zaharrei kontu gehiago egin behar zaie, bai, baina aldi berean, haiek ere kontu gehiago egin beharko liokete beren buruari (Lazarok ez du lehendabiziko pertsona erabiltzen, ez singularrekoa ez pluralekoa, zaharrez mintzo delarik.)

Sarritan telebistaren kaltea aipatzen du, ikaragarria baita hemengo aitona-amonek zenbat denbora ematen duten aparailuari begira. Erlojularia izaki, egunero telebista gelan batz beste ematen dituzten orduak aztertzen ari da. "Lelogailu hori utzi eta hobe zenbait bideo ikusi ondoren zineforumak egingo bagenu", esan ohi dit.

Dena dela, azken bolada honetan telebista behin baino gehiagotan matxuratzen da eta gaitzerdi.

SEI. Carmen Martín Gaiteren **Hodeitasun aldakorra (Nubosidad variable)** irakurtzen ari nintzelarik, atzo pasarte zoragarri honetara heldu nintzen: «bizigogoa apur bat berpizten da oraindik nor sentitzen zarenean, laguntzeko moduan...; eta, jakina, idazluma bezalako salbamen oholik ez dago...»

Egoitzara sarritan heltzen zaizkigu aurrezki kutxa desberdinetako gutunak, saldoekin-eta. "Gaur ere andregaiak idatzi al dik?", galdegiten diogu orduan txantxetan elkarri. Gaur, oster, Martín Gaiterena izan zitekeen gutun bat jaso dut, nahiz eta

inork sinatu ez.

Agur:

Hirurogei urtetik gorakoa izan eta laurogeita hamarrekokoak bezala sentitu nabi ez baduzu; burua argi izan eta gizarteari nor zarela erakutsi nabi badiozu, utzi aurrekanposantu hori eta etor zaitez bihar, otsailak 20, arratsaldeko lauretan, Metropolitan kafetegira.

Arren, ez inori aipa gutun bonen mezua.

Eta gutun horrekin ene ipuinak gatza eta piperra jaso dituela iduritu zait, musek intriga piztu nahi izan baliote bezala.

ZAZPI. Metropolitan hori hiriaren kanpoaldean, Judimendin dagoen kafetegi dotore bat da, eserleku eta mahai erosoekikoa. Gure artean ezaguna da kafe kikararekin batera, bonboi tiki bat eskaintzen dutelako.

Ohi bezala ni garaiz heldu nintzen aipatu kafetegira, eta bertan, egunkari zabaldu baten bestaldean, Lazaroren buru soilduxea ikusi nuen, eta baita, nitaz oharturik, bere begitartea urratu zuen irribarrea ere.

Ipuinaren pasarte honetan beharbada elkarrizketaz balia naiteke: berak espero ninduela, nik banekiela bera zela igorlea (nork bestela erabiliko zuen *aurrekanposantu* hitza?), beste bi gonbidatu ere bazirela, baina haiek etorri aurretik ezin zidala besterik esan, eta abarren abarra.

Haiek luze gabe etorri ziren:

-Daniel: hiriko beste egoitza batean bizi da eta gu guztiotan gazteena dirudi (fraka bakeroak, kirol oinetako argiak, bibote zaindua, ile urdindu eta sarria); elektrikaria

izana.

-Federiko: Txinparta ezizenez, esku fina eta arras gozoa harremantarako; Lazaroren ttikitako laguna; alabarekin bizi da eta oso iaioa omen elektronika gaietan.

Eta behin denak bildurik, Lazarok paper bat zabaldu zuen mahai gainean, eskuz marraztutako hiriko mapa antzeko bat, eta jarraian, paporean nabarmen zeuden bi X handi eta gorri seinalaturik, bere asmoak azaldu zizkigun...

(Egoitzarako bidean, Lazarok aho ttikiarekin esan zidan sor Luisak Sepúlvedaren liburua hartu duela, hau da, niri hain ahogozo ezitia utzi didan **Amodio nobelak irakurtzen zituen agurea**.)

ZORTZI. Ezin naiz hasi Lazaroren xedeak denak batera azaltzen. Ez, nik uste dut, balizko ipuinean, ekintza burutu ahala eza-gutarazi beharko nituzkeela, baina emeki-emeki.

Hasteko, beharbada adierazi beharko nuke X gorri haiek hiriaren kanpoaldean zeudela, eta lehendabiziko urratsa haietara bertaratzea zela.

(Eten ttiki bat markatutako puntuetaraino nola joan ginen argitzeko. Lazarok badu biloba gazte bat, Pelle, astero-astero ikusi bat egitera joaten zaiona. Bada, dirudienez, Pelle ere jakinean dago eta nahi dugunerako utziko digu bere autoa; dena dela, argi geratu da —eta Lazarok kosta ahala kosta horixe nahi zuen— ez duela ekintzan parte hartuko eta, jakina, gu harrapatuz gero, ez luketela bera salatzerik izango.

Beste oharño bat: intriga astiro agertu arren, irakurle aztiak dagoeneko jaso du ipuinaren hitz gakoak: ekintza; eta benetako irakurle aztia baldin bada, hitz hori beste zenbait

restaurante • jantoki
DOS
HERNANDEZ

1887an sortua
Jose Ramon Agiriano

madre vedruna, 10
Tfnoa: 13 29 34 - 13 44 46
01008 gasteiz

Kalitaterik
Onena!

pasarterekin lot dezake: gizarteari oraindik nor zarela erakutsi; hiri kanpoaldeko puntu ezezagun horiek; elektronikari buruzko hitzak; balizko harrapaketa... Hori dena ongi azaltzen asmatu behar dut, irakurlearen oroimenean oihartzun eragina izan dezan.)

Pelleren autoan joan ginen beraz, beren bizitzako lehendabiziko txangoa egitera doazen haur ezinegonak halatsu; eta mendi portura iritsirik, autoa baztertu eta oinez egin behar izan genuen gailurrera bitartekoa, izan ere langa batek galerazi egiten baitzuen pista tiki baterako sarbidea.

Gorakoan nik atzera ere sentituen ene bihotza ohi ez bezalako abiada hartzen, eta sabela hustutzera nindoala esan arren, atsedena eta bi pilula gorri hartu nituen.

Noizbait heldu ginen, behinik behin, X batez seinalaturiko puntu haietako batera, telebista hargailu erraldoira alegia. Itxitura batez inguraturik hargailua eta etxola bat ikusi genituen, eta zementozko itxitura gainean kristal puskak itsatsirik, eta apur bat gorago alantze latza. "Hori gutxienez duk, esan zuen Danielek, kontua duk hemen zaintzailerik ez egotea."

Hantxe bertan zahatoa eta ogitartekoak atera eta hamaiketako ederra egin genuen. Eta bien bitartean luze eta zabal mintzatu ginen gure ekintzaren ahalbideen gainean.

Azkenik, dena ongi lotutakoan, beharantz egin genuen:

-Lazaroren esku, egin beharreko bidaiaren gorabeherak eta koordinaketa lanak geratu ziren.

-Daniel eta Txinpartak hargailuei buruzko informazio gehiago es-

kuratuko zuten, hartara zehatz-mehatz jakiteko zer nolako materiala erosi behar genuen.

-Niri, azkenik, testu "hunkigarria" idaztea egokitu zitzaidan.

BEDERATZI. Egia da: batzuetan errealtateak fikzioa baino askoz ere harantzago egiten du. Atzo, esate baterako, sendagilearengana joan eta ez zidan ba toki epel batera joatea aholkatu! Aztoratuxe dabilkidan bihotz makal honek lasaitasuna, patxada eta epeltasuna behar omen ditu...

Bai ederki: aholku hau primeran datorkit edonolako susmoak niregandik uxatzeko. Orain badugu aitzakia ederra gure bidaiari egiteko eta, bestalde, agure masiatzaileek orain hobeki ulertuko dute Lazaro nirekin etortzea.

HAMAR. Kanaria Handiko Las Palmasen gaude, San Agustinen, Gloria Palace hotel erraldoian hain zuzen ere. "Otsailean hau gainezka zegoek eta ezin ba beste inora joan", adierazi digu Lazarok hona helterakoan, hain ostatu garestia aukeratu izanaz desenkusatu nahirik edo.

Astebete honetan aise beteko ditugu gure helburuak: batetik materiala eskuratu eta ekintzaren xehetasunak aztertu, eta bestetik apur bat beztea eta itxuroso itzultzea, esamesak-eta saihesterren.

Lazaro eta biok 710 gela zogarri honetan jarri gaituzte (dagoeneko bileretarako hautatu duguna); Daniel eta Txinparta goiko solairuan daude, 814.ean.

Hitzetik hortzera aipatzen dugu giro aldaketarena; otsailean egon eta udan bagina bezala sentitzea

zinez harrigarria zaigu.

HAMAIIKA. Zeinek esan behar zigun zahar egoitza batetik beste zahar egoitza batera etorriko ginenik! Hotela Italiako, Alemaniako eta Suediako jubilatuz josia dago eta atzo gauean...

Atzo gauean hoteleko *misterraren* hautaketa egin zuten, eta egin bazuten egin zuten! Lehiaketan parte hartzeko prest zeudenen bila hasi zirenean, ustegabeen Txinpartak Daniel seinalatu zuen eta honek, foko batek itsuturik, une batetik bestera eszenategi gainean ikusi zuen bere burua.

Gogoz kontra izanagatik, Danielek kabareteko balet lizun batean parte hartu behar izan zuen, emakume jantzitan noski; bere giharrak erakutsi behar izan zituen italiar jubilatue emeen txistuen artean, eta, azkenik, Frank Sinatraren doinu ezagun bati ahotsa egokitu behar izan zion (nahiz eta berak ingelesez fitzik ere jakin ez.)

Kontuak kontu, hoteleko mister hautatu zuten Daniel, eta hargatik beharbada, ordu ttikitan, kask-kask-kask, bakarren bat gelan ate joka hasi zitzaigun. Antza, Danielek Isabela izeneko italiar bat ezagutu zuen eta Txinpartari, arren eta arren, gela gau baterako eskatu zion...

HAMABI. Oro har 710. gelan biltzen gara, atearren bestaldean «Bitte Nicht Stören. Do not disturb» dioen txartela ipini ostean, baina birritan saunaz ere baliatu izan gara.

Bileretan Lazarok ekintza zertan den aztertzen du, zehaztasun handiz: Daniel eta Txinpartak dagoeneko eskuratua dute beharrezkoa zaien material elektronikoa, Kanarietan ohi den salneurri merkean; nik,



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

Ederki

argazki estudioa
ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideo industriala
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

MIKO

izozkiak


bestalde, zenbait irakurketa amaituak ditut eta, Lazaroren aholkuekin, testu bat borobilduxea daukat.

Beraz, gure xedeak bete direla ikusirik, egunari izena emateko, hotelako jatetxe dotorerara igo gara, terrazako igerilekuaren ondoan. "Hau nire kontu", esan du Lazarok hotelaren kanpoaldetik, termometroko merkurioaren gisa, gora egiten duen igogailuan sartu garelarik.

Txispatu samarturik egon gara. Danielek Isabelaren zenbait kontu irrigarri aipatu ondoren, Txinpartak aitortu digu pozik dagoela alabarenean bizitzen; antza, txakur itsu bat omen dute eta halako animalia errukarri bat ez hiltzea eta etxean edukitzea lasaigarria omen zaio... Gero 710.era jaitsi eta terrazan egon gara, berriketan-eta; denak Daniel salbu, jakina.

HAMAHIRU. Lerro hauek hegazkinetik bertatik idazten ari naiz. Kanariar uharteak utzi eta itsaso gainean Marokkoraino heldu gara. Leihatilatik Atlas mendikatea ikusten da eta batzuetan ezin argi antzeman elurra zer den eta zer hodeia. Hemen, zeruan, hegazkinen zenbait arrasto xuri gurutzatzen dira, hondoa urdin garbia delarik; eta behean lurra lehor, berde, ubel eta gorri ikusten da, tokiaren arabera.

Ene ondoan Txinparta dago. Uste baino heldurtiagoa da eta azafatari larrialdietako irteera ondoko jarlekuak eskatu dizkio. Lehenago eskuak izerditan izan dituela aitortu dit, batipat aieratu garenean;



orain lasaixeago doa, baina otordua ez du hasi ere egin (nola moldatuko ote da ekintza egunean?)

Ipuinerako, bestalde, ondoko eszena hau jaso nahi nuke: antza, aireportuko poliziak zaharrak ez ditu susmagarritzat hartzen; banaturik generamatzan aparailu elektronikoak medio, detektagailua ti-ti-ti-ti hasi delarik, erositako zenbait kamara geneuzkala esan eta besterik gabe joaten utzi digute. Inondik ere ez dute susmatu geure buruetan zer nolako asmoak generamatzan...

Daniel aurreko eserlekuan dago eta, Lazarok keinuka adierazi digunez, Isabelari idazten ari zaio. Irri egin dugu, baina gero, ilunabarrari begira halako nahigabe hitsa igo zait sabel barrenetik. Nahiz eta honez

gero sei urte iragan, Paularekin oroitzen naizen aldiro berdin gertatzen zait... Ur apur bat eskatuko dut pilula irensteko.

HAMALAU. Gaur uste gabeko bilera bat egin dugu. Metropolitan kafetegian bildu garenean, Lazaro inoiz baino larriago ikusi dugu, eta oraingo honetan mapa ez, baina egunkari bat zabaldu du mahai gainean.

Etzidamu telebistaz emango duten saio bati buruzko albistea zen, orri betekoa. Antza, Estatu Batuetan oso entzutetsua egin diren bi pertsona elkarrizketatuko dituzte: emazte irentzailea eta senar zakilgabetua. Titularra: «Senar zirikatzailea eta emazte zikiratzailea.»

zure euskal LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

berrikoia

AMILAMIA
arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

Honez gero gainerako telebista kateak zein baino zein ari dira, telebista horren erronkari eutsiko dion programazio berezia eskaini asmoz: futbola, filme lizunak...

Denok jaso dugu enbidoa: ekin-tza etzidamu izango da.

Bihar eta etzi lan asko izango dugu: azken frogak egin, testuari oniritzia eman...; baina batipat hargailuetan zelatan egon beharko dugu, ea telebista orduan nolako zaintza sistema duten ikusteko.

HAMABOST. Oso urduri gaude eta ene bihotza ez dabil bere onean, hala adierazten dit behinik behin X-raino igo eta tarrapatata hasten zaidanean.

Gaur, bazter batean ezkutaturik geundela, arratsaldeko 6ak aldean, jeep bat heldu da; bi gizon jaitsi, zigarro bana erre eta sartu-atera bat egin dute telebista eremuan.

Antza, Daniel eta Lazarok zelatatu duten hargailuan ordubete

pada ere biharko auto bat alokatuko d-gu. Daniel eta Lazaro Pellerenean joango dira.

-Egoitzakoei yoga ikastaro bat egiten hasi garela esan diegu, azken egunotan ez baikara afalordura garaiz heltzen.

Hirugarren oharño bat:

-Gaur konpondurik ikusi dugu egoitzako telebista; argi dago ez dutela etziko saioa inondik ere galdu nahi.

HAMASEI. Atzoko bi gizonak gaur sei t'erdia aldean heldu dira. Hargailu ondoko etxolan apur batean egon, kanpoan beste zigarro bana erre eta batek sekulako txizerreka egin duenean, abiatu egin dira.

Hamaikak arte egon gara hargailu inguruetan. Zorionez, arimarik ere ez da ibili zaintzaileak joan direnetik eta, beraz, aski denbora izan dut ene testua nahi adina bider irakurtzeko. "Labur, zuzen eta argi, aholkatu zidan Lazarok, baina ez ahantz botila bat ur ahotsa argitzeko eta badaezpada ere mentazko karameluren bat edo beste." Danielek, ostera, bestelako gomendioa eman zidan: "Ura-eta ahantzi eta Kanarietan erositako Chivas-a eraman."

Azken berriak: autoa alokatua dago eta irratiko albistegiak biharko eguraldi lehorra iragarri du.

Hogeita lau ordu barru izango da. Goizeko hamarretan geratu gara dena ongi lotzeko eta testuari azken begiratu emateko. Bihar bihotzak ezin dit huts egin.

HAMAZAZPI. Atzo izan zen ekintza eguna. Bihotz gaixoa zaldiko-maldiko baten gisa ibili zitzaidan, oso taupada bizkorretan. Hala ere nor sentitu nintzen, oso nor... (horrela esaterik baldin badaego bederen.)

«Itsasoan aitzurrean egitea bezalaxe», bai, esamolde hori baliatuko zait ipuinean atzoko gure ekin-



lehenago egon dira.

Beste bi oharño:

-Gaur Txinpartaren alabaren autoan etorri gara, baina badaez-

tza azaltzeko eta nolabait ere adierazteko ez genuela deus handirik aldatzea epero.

Geratu bezala, oraingan Opera kafetegian bildu eta bakoitzak bere arduren berri eman zuen: ekipamendu teknikoa, ordutegia, ibilbi-deak, autoak, testua... Eta dena prest zegoela ikusirik, Lazaroren begietan ordura arte antzeman gabeko distira agertu zen.

Beharbada honako hau une egokia da berriro ere gogorarazteko ene bizitza zeharo aldatu zela Lazaro egoitzara azaldu zenetik, baina ezin hasiko naiz orain ekintzaren kontaketa eteten.

HEMEZORTZI

Gaeko bederatzit'erdietan Ar-mentian bildu ginen, eliz inguruan. Daniel eta biok oinez igo ginen eta hara heltzean bi argi kliskada ikusi genituen: bata Lazaroren autoarena eta bestea Txinpartak zeraman auto alokatuarena.

Daniel Lazaroren autoan sartu zelarik "Eutsi goiari!" esan zigun ukabila altxatzeaz batera; gero Lazaro bera mintzatu zen: "Batez ere lasai jokatu eta trasmisioa hala-beharrez baino ez erabil." Eta halaxe abiatu ginen, Lazaro eta Daniel batetik, eta Txinparta eta biok bestetik, bi auto bi X haietara.

Telebistako *Auzitan* saioa, «Zirikatzailea eta zikiratzailea», hamar t'erdietan hastekoa bazen ere, gu hamarretarako hargailuan geunden. Eta ordu erdia iragan zelarik, eskularruak jantzi eta erabatekoa zen isiltasun hartan itxiturara inguratu ginen. Klak!, sarraila hautsi eta barrenera egin genuen. Klak!, entzun genuen bigarrenkoz etxolako sarraila irekitzean. Eta etxola barreanean, nik argia egiten nion bitartean, Txinpartak hango kable eta botoi artean jardun zuen. Hitzik ere egin gabe (ni bitartean hegazkineko eszenarekin gogoratu nintzen), halako batean irribarre egin zidan: dena ongi atera zen. Apur bat itxaron genuen, Lazarok eta Danielek egin zezaketen

deiaren zain, baina deitzen ez zutela ikusirik, autorantza egin genuen.

Nahitara ez ginen agudoegi jaitsi; ez, hobe zen gero testua behar bezala ahoskatzeko. Nik, bien bitartean pentsatu nuen egunen batean zehaztasun handiagoz agertu beharko nituela bai erabilitako material elektronikoa bai burututako lanak. Gero, behin autoan sartuta, badaezpada ere Chivas whiskyari tragoskada bat jo nion. Txinpartak ez zuen nahi izan: "Gidaria ni nauk eta ez duk komeni."

Autoa martxan jarri aurretik atzeko eserleku azpian zeuden zenbait tramankulutako botoiak sakatu zituen. Telebista hargailuko bezalakoxeko argi gorrixka batzuk piztu ziren, ttikixegoak. Azkenik, mikrofono bat eskuratu eta "Jaisten hasten garenean, PLAY sakatu eta irakurtzeari ekin" esan zidan.

Arazorik ez izatera, ikusleei artean ongi helduko zitzaie eman-

kizuneko ahotsa, baina botoi hura sakatuz geroztik nirea heldu behar zitzaie. Bestalde, nahiz eta ahotsaren kalitatea apur bat kaxkarragoa izan, transmisioa ibilgailu batetik egitea komenigarria zen, hartara gu harrapatzea zailagoa izango zelarik.

Une hartan, beraz, mikrofonoari zapi fin-fin bat ezarri, eztarria argitu eta oso enea ez zen ahotsez mintzatzen hasi nintzen:

HEMERETZI.

PLAY. Gabon.

«Auzitan» teleaioa ikusten ari zara; iragarri dutenez, gure hiriko biztanleen %84a zu bezalaxe egongo da, aparailutik begirik kendu gabe. Emakume batek bere senarrari zer eta zergatik egin zion jakin nahi duzu; eta beharbada saioaren amaieran erakutsiko den zintzilikarioaren argazkia ere ikusi...

Baina, ba al dakizu batz beste egunero biru ordu t'erdia ematen



dugula telebistari begira? Ba al dakizu bilean 4 egun, urtean 50 egun eta zure bizitzan 10 urte inguru iragan ditzakezula aparailuaren aurrean? Eta ba al dakizu, esate baterako, saio bonen aurkezleak urtean jasotzen dituen 300 milioez gain, gaurkoarengatik beste 10 milioi jasoko dituela? Zenbat urte beharko zenuke zuk balako dirutza eskuratzeko?

Orain dela gutxi, elkarrizketa batean, «Mahaiburu» telesaioko aurkezleak aitortpen hau egin zuen: «Telebistak oso ongi daki jendearen gogoia zuzentzen. Ni telebista aurkezlea naiz eta balaxe egiten dut, eta badakit zer egin jendeak irakur ez dezan, jakinminik izan ez dezan; badakit zer egin bidaiarik egin ez dezan edota lagun batzuekin kalean ibil ez dadin.»

«Nekaturik gaude, lan egunak akiturik utzi gaitu, zergatik ez eseri eta tarte batean telebista ikusi?» galdegingo duzu, eta ez zaizu arrazoirik falta. Baina telebista al da irtenbide bakarra, solaskide bakarra...?

Kontsolek gure haurren erretinak eta burmuinak erretzen eta irensten dituzte; aerosolak ozono geruza zulatzen ari diren gisa berean, telebista dugu gure neurona geruza hondatzen ari dena.

Izan gaitzen geure bizitzen protagonista. Urteak 365 egun baldin baditu, ez iragan 50etik gora ikusle hutsa izaten. Ez alferrikaldu zure biziltzako hamar urte.

Telebistari eta, oro bar, komunikabideei buruzko hausnarketa eta elkarrizketa sakona eskatzen ditugu!

Izan gaitzen geure bizitzen protagonista!

Gabon. OFF.

HOGEI. Biharamuneko egunkari guztiak titular beretsuekin argitaratu ziren: «Talde ezezagun batek telebista interferitu zuen»; «Ezezagun batzuek telebista frekuentzia bereganatu zuten»; «Sabotaia telebista hargailuetan»; «Kritikaren ahots misterioitsua»... Eta funtsean denek antzeko gauzak esaten zituzten: bi hargailuetan aldi berean aritzeak talde organizatu bat dela suposarazten zuela; polizi iturrien arabera oso ezjakinak ere ez zirela, ahotsa puntu mugikor batetik zabaldu baitzuten; oraindik inork ez zuela ekintza bere gain hartu...

Bestalde, denek irakurritako testuaren transkribapena zekarten eta egunkari batek gehigarri bat ere eskaintzen zuen, eta barrenean, telebista itxurako orri batean, geuk zabaldutako mezua.

Eta ekintza egunaz geroztik, irratietan, egunkari eta aldizkarietan, telebista kate desberdinetan eztabaida piztua dago, geure aurpegietatik aldentzen ez den irriño isil eta konplizea bezalatsu.

Gaur ez naiz Metropolitanera joan. Atzo behar baino gehixeago edan nuen eta bihotza ohi baino aztoratuago dabilkit. Pozik nago, baina bihar sendagilearenean txanda eskatu beharko dut.

HOGEITABAT. Eritxeko larrialdien sailera ekarri naute. Ez zait batere gustatzen errepidean niregatik halako zalaparta ateratzea.

Lazaro etorri da. Bere irribarre maltzurra erakutsiz, aitortu dit ez zela kasualitate hutsa egoitzako telebista lehen hainbestetan matxuraturik egotea. «Konpontzen ez zekiat, baina izurratzea erraza duk.» Bestalde, egoitzako jendea bera ere oso asaldaturik omen dabil telebistaren erabilerarekin. «Eta, ez al dugu bilerarik egin behar?», galdegiten omen diote Lazarori.

HOGEITABI. Oso nekaturik nago.

Gaur, Lazarorekin batera, Txinparta eta Daniel etorri zaizkit. Antza, Danielek Isabelaren gutun bat jaso du.

Lazaro inguratu eta mezu hau xuxurlatu dit belarrira: «Aizak, ez egin tontakeriarik gero... Hurrengo ekintza pentsatua diat: hirian erabateko itzalketa eragitea. Bai motel, ez telebistarik, ez bideorik... Denak kandelen argitan eta solasean, edo ipuinak kontatzen, nork daki? Beraz, gurekin behar haugu.»

Irri egiten dut Lazarorekin. Bere etorreraz geroztik nor sentitzen naiz eta gainera ipuin berri bat dut esku artean...

Dena dela, zerbait gertatuko balitzait, erizain poxpolin bati koaderno hau Lazarori emateko eskatu diot.

Amaitera

Cerveceria Alemana

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

SALTXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK



HegoAmerikako jantziarik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren
kantoiaren ertzean
Tfnoa: 25 03 52 GASTEIZ

Josean Kerejeta: «Laussanen geure herriaren benetako aurpegia erakutsi geuen»



GEU GASTEIZ: Ezagutzen omen zaituztenek gogorra zarela diote.

JOSEAN KEREJETA: Hori ez da egia. Ni ez naiz gogorra, gainera ospe hori soinean izatea ez zait axola.

G.G.: Halere, aurtan kritika zorrotz horiek zirela eta, dena bertan behera uztekotan izan al zinen?

J.K.: Ez. Badakit agintaritzan diharduen batek une txarrak jasan behar izaten dituela. Momentu onak jokalariek bakarrik gozaten dituzte. Hori ulertzen ez duenak hobe du alde egitea. Hala esan nuen nik behin, baina ondo pentsatu gabe. Oso gustora egiten dut lan Baskonian, eta uste dut zaletuak gure lanaz ohartu direla. Non zegoen taldea orain sei urte eta non dago orain? Kritikak hiri txiki batean normalak dira.

G.G.: Hedabideok (edo komunikabi-deok) minik egin al dizugu?

J.K.: Gauzak errezegi esaten dira, informazio barik. Horrez gain, kazetariak abantaila duzue, egunero idazten duzue eta. Guk, aldiz, ez dugu

“**Kirolean erabakiak agudo hartu behar izaten dira**”

TAUGRES-BASKONIA taldea goruntz begira dabil aspaldidanik Josean Kerejetaren eskutik. Lazkaotarra ez dugu inoiz galtzailea izan; atzerapausuak ere ez ditu gogoko. Gasteizko taldeak Ohorezko Mailan hogeitau urte pasatxo bete dituen honetan, Europako final batera iritsi da. Hori guztia gipuzkoarraren zuzendaritzapean gertatu da; argi dago Joseanek badakiela bere produktua saltzen. Guk ondorengo elkarrizketaren bitartez Josean Kerejeta hurbilagotik ezagutzeko parada eskeini nahi dizuegu.



**Esperantoa
denona
denontzat**

MATRIKULATZEKO
EPEA ZABALIK

*informa
zaituzte*

Zapateria, 29 ☎ 22 00 71 (Natxo)

ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxillera, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ



- ✓ Adina: 37 urte.
- ✓ Jaioterria: Lazkao.
- ✓ Josean Kerejeta puntako jokalaria izan zen. Bere lehen saskiraketak Lasaika taldean erdietsi zituen, 16 urteko gaztetxo bat besterik ez zelarik Josean. Baskoniak berehala fitxatu zuen eta lazkaotarra Mendizorrotzako kantxan hamar urtez aritu zen, bi boladatan banaturik. Pradarekin batera, Euskal Herriaren mugez harantzago abiatu zen aurreneko jokalaria euskalduna dugu Kerejeta. Real Madrid, Joventut eta CAI Zaragozaren deiei baietz borobila eman zien gure gaurko protagonistak.
- ✓ Bere ustez munduko jokalaririk onena: Olajuwon.
- ✓ ACB-ko beste bosteko ideala: Pablo Laso, Perasovic, Marcelo Nicola, Sabonis eta Ramon Rivas.
- ✓ Baskoniak izan duen jokalaririk onena: Perasovic. "Partiduan zirt edo zart egin beharreko une erabakiorretan beti egoten da croatiarra".
- ✓ Aisi tartetan: "Ia ez dut astirik izaten. Hala ere, kirol piska bat egiten dut, zinemara joan, lagunekin izan... Eskumuturreko mina zela eta, saskibaloia utzi behar izan nuen, eta egun ez dut inoiz jokutzen. Alabaina, astean hiru edo lau aldiz zortzi bat kilometro egiten ditut korrika. Mendira joatea ere atsegin dut"

“ **Lausannen negar egin nuen, batez ere, Baskoniaren zaletuengatik** ”

horretarako aukerarik.

G.G.: Baina aitortu behar duzu zu zauden aulki horretan egoteko gogorra izan behar dela.

J.K.: Batzutan, kirolean erabakiak agudo hartu behar izaten dira. Diru kontuak, lesioak... hemen ez dago lasaitasunik. Kirol profesionala holakoa da, baina makina bat erabaki ez dut nik soilik hartzen.

G.G.: Gogorra zaren ospe hori soinetik erantzeko esan behar dugu Lausannen negar egin zenuela...

J.K.: Une hura dexente gogorra izan zen. Hainbeste jende hor ikustea oso bidaia luzea egin eta gero... Batez ere zaletuengatik sentitu nuen.

G.G.: Begien aurrean zenuen harmailetako jaia sinesten al zenuen?

J.K.: Banekien jende asko zela joatekoa. Halere, ikurrina eta pankarta horiek guztiak hor ikusterakoan... Ez nuen sinesten. Partidua amaitu eta galdu ondoren ere, gure zaletuen jarrera primerakoa izan zen. Hurrengo egunean Andre Maria Zuriko omenaldia... hitz batean esanda: ahaztezina.

G.G.: Europako final hori gogora ekarri, zer izan zen garrantzitsuena, hara joan ziren gasteiztarrek eman zuten ikasgaia beharbada?

J.K.: Euskal Herriaren benetako



aurpegia erakutsi genuen. Badakizu, hortik zehar gure herriari buruz dituzten iritzi guztiak txarrak dira.

G.G.: Zer esango zenioke Taugres-Baskonia enpresa pribatu askoren moduko beste bat besterik ez dela esaten duenari?

J.K.: Hori kritika erreza da. Horiek ez dira pabiloian sekulan izan, ez eta omenaldietan ere. Ez dakite zer den Baskonia gasteiztarrentzat.

G.G.: Aurtengo Taugres-Baskoniak gailurra ikutu al du ala oraindik urrats garrantzitsuagorik eman al daiteke?

J.K.: Hemendik lasterrera lortu behar dugu 10.000-12.000 lagunentzako kiroldegi bat. Bestela akabo, hazteko aukera guztiak alperrikalduko genituzke eta. Diru sarrera handiagorik behar dugu. Gogoratu iaz Arlauskas saldu behar izan genuela.

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

*Karta betiko eta oraingo platerekin
Eguneroko Menua: 1000 pzt
Betiko kazuelatxoak*

ELKARTASUN DENDA



Kutzileria 15 Gasteiz
Tfnoa: 25 51 41



G.G.: Diru arazoak konpontzeko hainbat erakunderen laguntza beharrezkoa da.

J.K.: Pabiloi hori ez litzateke Arabarena soilik izango, Euskal Herri osoarena ere bai. Donostian Anoeta duten bezalatsu, edota Bilboren kasuan, Guggenheim museoa. Pabiloi horretan kontzertuek, jazzak... izango lukete lekurik. Europako Liga 96an

hasiko da eta guk hantxe egon nahi dugu.

G.G.: Pablo Laso ez ezik gasteiztar gehiagorik bai?

J.K.: Badira batzuk gazteen taldeetan. Gainera, kontutan hartzekoa dugu Cazorla anaiak, Iñaki Gomez eta Pedro Rodriguez jokalaria bezala Gasteizen jaio direla. Euskal Herrian ez gara oso altuak. Dena den, salbuespenik badugu, 14 urteko mutil bat. Horrek bi metro eta 14 zentimetro neurtzen du, eta bere medikuaren arabera, oraindik gehiago haziko da. Espero dezagun hemendik gutxira laupabost gazte lehenengo taldera salto egiteko gertu izan daitezen. Guk, behintzat, hala nahiko genuke.

“ **Berehala lortu behar dugu 10.000 edo 12.000 lagunentzako kiroldegi bat, bestela akabo** ”

Ismael **D**iaz de **M**endibil

Josean Kerejetaren nortasun agiria



Hiri bat bizitzeko...

Gasteiz Donostia Lazkao

Kirolaririk gogokoena...

Michael Jordan Julen Guerrero Indurain

Zein duzu gustokoen?

Alaves Erreala Athletic-a

Auto bat erosiz gero...

Dyane 6 «Kakalardoa» Audi 100

Jateko orduan...

Legatza Babarrunak Txuleta

Taberna batean...

Ardoa Gin-Tonika Txanpaina

Musika kontuan...

Oskorri The Beatles Klasikoa

Emakume kontuan...

Ile horiak Beltzaranak Guztiak

Onena...

Perasovic Nicola Kukoc

Gasteizko txokorik atseginena:

Armentia



**IRUNA
TABERNA**
HAMARRETAOKAK


KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52
GASTEIZ



itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

KAIXO LAGUNOK, hilabete honetan Martin Susaeta kalean dagoen «Antonio Fornies» ikastetxeko ikasleek (5 B taldekoak) bidalitako lanak argitaratzen ditugu. Bidalitako guztientzako lekua ez zegoen bertan, baina lasai egon, hurrengo aleetan ere jarraituko dugu zuen lanak plazaratzen. **Eskerrik asko!**



Eskolako furra-furra

Unai Domingo (5. maila)

Furra-furra fandangoa hortxe duzu fandangoa geure gustokoa (bis)

Gaur astelehena da ta klasera noa, ikuilura abiatu naiz hartzera astoa. Etxetik irten gara ni ta nire anaria, agur esan diogu geure amari Amaia

Furra-furra... Orain klasean nago ikasten lenguaia hortarako jan behar da behiaren mingaina. Klasea bukatu da a ze roiloal orain nahi duguna da gure patioa.

Furra-furra... Bukatu da patioa jolasteko ordua orain klasera goaz gu eta maisua. Ikasten gaudenean Espainako mapa gure klaseko batek

egin digu kaka. Furra-furra la hamar gutxi dira eta amaitzen gaude ta agur esan digu geure irakaslek. Bukatu da klasea gustatzen zaiguna orin goaz etxera ni eta laguna.

Furra-furra... Laster hirurak dira berriro klasera orain ardatzekoa goaz egitera. Ze nazka giltzurdinak eta ere bihotza baina nik badaezpada jantzi dut guante hotza.

Furra-furra... Beldurgarriena da euskarako kontrola idatzi behar baitugu Gernikako arbola. Amaitu da klasea etxera banoa, gidatzen ni bakarrik neure astoa.

Gurutzegramama

Amaia

1. Hogerleko ▪ 2. Ez esatea ▪ 3. Bukatu ▪ 4. Zatararik gabeko puzkerra ▪ 5. Ahoa eta lepoaren artean daukaguna ▪ 6. Umil ▪ 7. Bakarra ▪ 8. Gizajoa ▪ 9. Hilda dagoen gizon baten gorputza ▪ 10. Poltsa txiki bat ▪ 11. Lehorra ▪ 12. Gutxi ▪ 13. Ahoan daukagunak janaria txikitzeko.

deportivos

AZOKA

kirolgaiak

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 34 tfnoa: 24 75 04
Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33

Fax: 22 07 19

UDABERRIA
elkartea

•Euskaltegi Homologatua •Musika eskola
-Helduentzat •Dantza
-Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12

GASTEIZ

ean



Asmakizunak

Ez du hankarik
eta badabil
ez da idia
eta badu adarrik
ezin presaka joan
izango balu beharrik

barraskiloa

Hankarik ez
eta sigi-saga dabil,
besorik ez
eta zuhaitzetan kiribil.

sugea

Beti harro-harro doan
oihaneko erregea ikusten
baduzu zirkoan
preso dagoen seinalea.

lehoia

Lehorrean makala
uretan bizkorra
suge-burua du
eta etxea gogorra.

dortoka

EusKaRA eZ jaKiTEa NeGAR EgiTeKOa Da



Amaia Fernandez

ErAntZuNAk

Pinu • Izeia • Arte • Haltza
Gaztainondo • Sahatsa
Intxaurondo
Makal • Gerizondo
Haritz • Pago • Gorosti •

HIZKI SALDA:

1. Duro • 2. Ezezen • 3.
Amaitu • 4. Putz • 5.
Kokotza • 6. Apal • 7. Soil •
8. Koitadu • 9. Zerraldo •
10. Zorro • 11. Idor • 12.
Urrti • 13. Hortzak

GURUTZEGRAMA:

Hizki saldoa

ONDOKO KOADROAN
12 zuhaitzen izenak
aurkitu behar dituzu.



Ausar-
tuko
al
zara?

A	K	A	N	P	A	L	A	G	U	R	I
N	I	G	H	A	R	I	T	Z	U	L	M
M	L	E	P	G	O	R	O	S	T	I	A
O	O	R	I	O	L	A	X	S	A	G	K
P	L	E	N	R	I	U	S	M	E	A	A
A	O	S	I	O	M	P	Ñ	T	P	S	Ñ
Ñ	Ñ	O	S	A	J	A	T	S	A	T	P
I	A	O	A	L	A	G	A	I	I	A	N
D	M	N	D	D	L	I	A	E	E	I	I
O	A	D	F	O	T	K	O	F	Z	N	S
A	N	O	I	R	I	N	A	U	I	O	A
U	A	E	I	O	A	R	T	E	A	N	M
I	N	T	X	A	U	R	R	O	N	D	O
A	G	B	H	D	J	A	U	I	L	O	O



Benito Ginea

liburudenda

Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ



Oketa

Luzera: 17 km
 Denbora: 2 ordu t'erdi
 Zailtasuna: ERDI-MAILAKOA
 Interesgarritasuna: ***
 Distantzia, Gasteiztik: 25 km
 Bizikletaz: %99a

GORBEAREN hego-ekialdean dago kokatua Oketa mendia (1.031 m). Ibilaldian zehar, inguratu egiten da mendia, bai eta tontorrera igo ere.

Muruako errotatik abiatuta, urtegiataro doan asfaltuzko bidetik aurrera jo behar da. Harrobia eta urtegiak atzean utzita, pagadi eta zelaietan barrena igotzen da tontorreraino. Ezkerreko aldean uzten da Gorbea inguruko haitzulorik handiena den Mairuelegorretara doan bidea.

0 km **ERROTA**
 Muruatik Gorbeako urtegiataro errepidean, Muruatik bi kilometrotara errota bat dago, eskuineko aldean. Hor dagoen zabalgunetxoan utzi autoa. Etxaguenerako bidea dago eskuinean (itzultzeko bidea da hori).

Urtegiataro doan bidetik aurrera jo. Urtegiak atzean utzi ondoren harrobira iristen da.

2,4 km **HARROBIA**
 Erreka gurutzatu eta bide zabaletik barrena segi, bidegurutzeraino.

3,2 km **BIDEGURUTZEA**
 Errekastoa gurutzatu eta eskuineko bidetik segi, aldapan gora, aurrez aurre alanbrada bat aurkitu arte.

4,7 km **ALANBRADA**
 Bidea eskuinetara okertu eta borda bateraino doa. Metalezko langa bat dago hortxe.

5 km **BORDA**.
METALEZKO LANGA
 Hori pasa eta aurrez aurre dagoen zelaian barrena jo, apur bat eskuinaldera egin eta pagoak inguratuz. Mendi-hegalean zehar igo, luebaki antzeko pare bat igaro, eta metalezko beste langa bateraino jaitsi.

5,6 km **METALEZKO LANGA**
 Bide zabalean barrena, aldapan gora egin eta, bihurgunean ezkerretara hartuta, pagadiraino igo. Mendi-hegalean zehar jarraitzen du bideak, pagadian barrena, bidegurutze bateraino.

6,5 km **BIDEGURUTZEA**
 Ezkerreko bidetik jo, aldapan behera, oraindik ere pagadian barrena. Arbolarik gabeko tarte bat igaro bezain laster, eskuinetara doan bide bat dago.

7,8 km **ESKUINETARA DOAN BIDEA**
 Bide nagusia utzi eta eskuinetara hartu. Lehenengo hoge metroetan aldapa gora gogorra dago (indarrak ondo neurtu beharra dago).



Bide horretan gora segi, leporaino. Urtegiak ikusten dira hortik.

9,2 km **LEPOA**
 Eskuinetara hartu eta, belarretan markatuta dagoen bidetik barrena, Oketa mendiaren gailurrera igo (1.031 m). (Atsedena hartzea komeni zaio ondo prestatuta ez dagoenari).

10,7 km **OKETA (1.031 m)**
 Ikuspegi ederrak. Igotako bide beretik jaitsi, lehenengo leporaino.

12,2 km **LEPOA**

Esquin aldera jaitsi, belarretan markatuta dagoen bidetik, lehenengo bidegurutzeraino.

12,3 km **BIDEGURUTZEA**
 Eskuineko bidea hartu eta metalezko langa dagoen lekuraino jaitsi.

12,6 km **METALEZKO LANGA**
 Hori pasa bezain laster, bidea utzita, eskuinetara hartu, alanbradaren paretik, metalezko bigarren langa bateraino (ez dago biderik; larrean barrena jaitsi behar da).

13 km **METALEZKO BIGARREN LANGA**

IRUSTA TABERNA
 poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
 Patata tortila • Otartekoak
 Mateo Moraza 19
 Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

Xabier
 taberna
musika ona
giso ezinhobe!
 Kutxileria 23
GASTEIZ

Hori pasa, erreka toa gurutzatu eta bidean behera segi. Metalezko bi langa (14 km eta 14,2 km), eta iturri bat (14,3 km) pasatu behar dira, lau bideren elkargunera iritsi aurretik.

14,3 km LAU BIDEREN ELKARGUNEA
Aurrez aurre segi, bidearen ezker aldean dagoen arketa bat topatu arte. Eskuinera doan bide bat dago hor.

14,6 km ARKETA ETA BIDE GURUTZEA
Eskuinera doan bidea hartu, alanbrada baten ondoan dagoen hurrengo bidegurutzeraino.

14,7 km BIDE GURUTZEA ETA ALANBRADA
Ezkerretara hartu eta, bi alanbraden artean, aurrera segi bide nagusitik, gaztainondo batzuen azpian dagoen bidegurutzeraino.

15,3 km GAZTAINONDOAK. BIDE GURUTZEA
Eskuinera jo, alanbradaren parean, ehun bat metroren buruan dagoen bidegurutzeraino.

15,4 km BIDE GURUTZEA
Eskuinera jo (bidea ona da, eta, ezkerretara, Etxaguenera doa). Errekaraino jaitsitakoan zubi zaharretik gurutzatu eta aurrera segi, errostaraino.

17 km ERROTA.

OHARRAK

- * Udarako ibilbide aproposa.
- * Oketatik urtegiak dauden aldera ere jaitsi daiteke (oinez igotzeko erabiltzen den bidetik).
- * Arretaz jarraitu 14,3 kilometrotik 15,4 kilometrora bitarteko oharrak. Hala ere, bidea gaizki hartuz gero Etxaguen aldera ateratzen da, eta errepedez itzul daiteke abiapuntura

ORAINGOAN hizpidera dakarzkizuegun platerak oparo horniturikoak ditugu, "arroza euskal erara" izena duena, batez ere. Alabaina, bata zein bestea prestatzeko ez dugu inondik inora sukaldaritzan izugarritzko jakituririk izan behar biak oso errezak baitira atontzen. A!, eta kontuz ibili piperrekin, bihotzerreak jatunen bat jo lezake eta.

Piperrada

Osagaiak (lau mahaikiderentzat):

Piper lodiak: 6.	Arraultzeak: 6.
Olio.	Ogi frijituaz eginiko pikatosteak.
Gatza.	
Piperrautsa.	

Nola egin:

Labean edo suaren gainean egosi piperrak azala kendu ahal izan diezaiegun. Gero, horiek zati luzeetan ebaki beraien artean ez hazirik ez azalik gera ez dadin saiatuz.
Piper puskek eltze batean paratu eta berotzen jarri olio ugariz. Eltzea estali eta su epeletan eduki.
Lantzean behin iruntziratu piperrak eta gatza zein piperrautsa bota gainetik. Piperrok beren uraren gainean egin behar dira ia erabat frijitu arte.
Beren salda guztiz desagertzen denean, arraultzeak irabiatu eta piperrak gehitu aurrekoari, batzuk eta besteak elkarrekin nahastuko ditularik. Horrenbestez, jateko prest izango da.
Honen osagarri gisa, ogi pikatosteak mahairatzea aholkatzen da.



Arroza euskal erara

Osagaiak (lau mahaikiderentzat):

Arroza: 4 katilukada.	Azalik gabeko piper gorri erre
Haragi salda: 4 katilukada.	edo potekoa: 2.
Oilaskoa: 500 gr. (pusketatan).	Arraultze egosiak: 3.
Hegazti barruki zenbait.	Arraultze arruntak: 8.
Urdaiazpiko giharrea: 100 gr.	Txerriki giharrea: 100 gr.
Xingil txikia eta azalik gabea: 100 gr.	Txorizo txikiak: 3.
Baratxuria: ale bat.	Saltxitxak: 4.
Txorizotarako piperrak: 2.	Gatza.
	Tomate-purea.
	Olio.

Nola egin:

Buztinezko eltze bat hartu, ez nolana hinkoa, ordea, bertan platera egiteko osagaiek, urak eta arroz harrotuak izan behar baitute lekurik.
Baratxuriak frijitu olio berotan eta poliki-poliki gaineratu banan-banan oilasko zatikatua, txerriki giharrea, xingil txikiak, txorizotarako piperrak, txorizo arruntak, saltxitxak eta hegazti barrukiak.
Dena su bigunez ondo berotu eta arroza paratu gainean; salda eta gatza horri gehitu eta dena gogotik nahasi. Erdi egosia denean, lehengoari atxeki arraultze gogorrak (mintza kendu eta xerretan ebaki eta gero). Ondoren, piper gorriak gaineratu.
Tomate-purearekin eta arraultze frijitu pare banarekin batera mahairatu ohi da plater hau.

Bacalao Giraldo

•Egunero makailu gesaldua •Makailua eramateko prest
•36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN
«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»

Angulema, 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran - Gasteiz



ELKARRIKETA INPREKTUALA



AAA...
HAU BAI E-
GUA EDE-
KRA



NORA BEGIRATZEN
DUZU? HEMEN
NAGO!



GELDI,
MESEDEZ!



OSTI! HAU
GAUZA HARRI-
GARRIA...

HARRIGARRIA?
ZERGATIK?



EZ DA GAUZ
ARRUNTA XIXARE
BERRITSU BAT
AURKITZES... ZIR-
KO BATEK IHES
EGIN DUZU?

BETIKOA!
GIZAKIEK GUK
TXIKIAK IZAN ETA
BURUGABEAK GA-
RELA USTE DUZE,
BAINO HAU EZ
DA EGIA...



MUTANTE XIXAREOK,
IKASTETXE LURPERATUAK DAU-
KAGU ETA GUSTORA JOATEN GARA.
GURE BURMUINA TXIKIA DA, BAINO
OSO BOTEKETSUA, ETA BATEZ ERE EZ
GARA ZUEK BEZELA, AIN ARROK;
MUNDUAREN ERABE-
AK ZARETE?



BIHAR, MUNDU OSOA GUREA IZANGO DA. ADI-
BIDEZ, GIZAKIEN ARTEAN ZENBAT ENDE AUR-
KITUKO ARIEN, NERKIN ELKARRIKETATXO
BAT EDUKITZEKO PREST? ZER DAUKIZU
"BIG BONGEATZ"? PARTIKU-
LEEN PSIKODINALLISA?



UAAA!
NAHIKOD ENTZUN
DUT...

...ETA
RTUALA A
REN EZ
ERABILT
REN LA
ETA

...EGI BI-
ZALOREA
KUNTZAN
ZEN DI-
SER



O, EZ!
ARDOA BUKA-
TU DA!

ER TXI-
MISTAK?
RDE NAGAI-
MINBIZI
TIBOTAZ?
SEIN.



PIXKA GU-
TXIAGO EDAU
BEHAR MOZLA
USTEN DUT.

GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaría, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	



Lortu azkar zure TeleCaja Joven
ala honela geratuko zara!!!



Linea Gaztea

Caja Vital  Vital Kutxa

Etxebizitza erostekotan bazabiltza, negozioren bat zabaldu nahian edota kotxea erosteko edo oporrek egiteko kreditua eskatzeko asmotan... entzuidazu ala buruz behera ibiliko zara. Zatoz Caja Vital Kutxa Joven-era. Guretzako bereziki dituzten abantailak aprobetxatzeko aukera daukazu. Egin esandakoa, ni bezain zintzilik geratu nahi ez baduzu.